


### Ilargirako bidaia denontzat

Urrutitik gidatutako makina hau, 1997. urtean Ilargian ibiliko da. Ibilgailua gainera, edozeinek maneiatu ahal izango du. Estatu Batuetako Luna Corp konpainiak izan ere, Ilargiko ibilaldia



Urrutitik gidatutako makina hau, 1997. urtean Ilargian ibiliko da. Ibilgailua gainera, edozeinek maneiatu ahal izango du.

jolas-parkeetako jendearentzat CD-ROMetan jaso du eta pantailako errealitate birtualari esker edozeinek eman ahal izango du gure satelitean zehar pa-seotxo.

### Belarri misterioitsuak

Hubble teleskopioa espazioan konpondu zutenez gero, irudi harri-garriak ari da bidaltzen. Horietako bat da 1987 A supernoba izeneko izarrari atera diona. Izan ere, izarrak bere erdigunearen inguruan bi zirkulu edo "belarri" handi eta simetriko dituela erakusten baitu. 1987.eko otsailean, Magallaesen Hodei Handian bapatean oso orban distiratsua agertu zen; orain dela 170.000 urte (argiak honaino etortzen denboraldi hori behar izan du) lehertutako supernobaren argia, zalantzarik gabe. Harez gero astronomoek ez diote begirik kendu, eta distira moteldu egin zaio. Ez-tandan jaurtitako gas-esfe-

ra azaldu zitaion (irudiko erdigunea inguratzen duen esfera), eta hori guztia supernobaren garapen logikotzat hartu izan da.

Hubble-k aurkitutako belarriak ordea, misterioitsuak dira. Izan ere, bi gas-esfera berri hauek zer dela eta sortu diren ez baitago erraz argitzerik. Christopher Burrows ikerlari iparramerikarrak iradoki duenez, bi "belarri" horiek 1987 A izeneko baina lehenagoko beste supernoba baten ez-tandak eragindakoak izan daitezke eta agian neutroi-izarra erdiko argi-puntua izan daiteke (irudiko puntu distiratsuenaren gainekoa). Supernoba lehertu denean ondoan zegoen beste izar baten arrastoak ere izan daitezke. Nolanahi ere, bi belarrien simetria perfektua eta jatorria frogatzen dituen azken hitza

1987 A supernobari inguruan bi "belarri" handi azaldu zaizkio. Aurreko supernobaren baten arrastoak izan daitezke, eta geziak erakusten duen puntua izar-neutroia.



zientzilariek oraindik ez dute esan.

### Asteroideen aurkako misilak

Azkenaldian asko ari da aipatzen espazioko asteroideek Lurrera erortzeko duten probabilitatea. Erremedioa Lurrera letorkeen asteroidearen kontra misila bidali eta espazioan ez-tanda nuklearra eginda desbideratzea litzatekeela diote batzuek. Carl Sagan astronomo ospetsua ordea, iritzi horrekin ez dator bat, kalteak onurak baino handiagoak izango liritekeelako.

Bere garaian "Izarretako Gerra" deitu zitzaion proiektuko militar batzuek "Spaceguard" proiektua bultzatu nahi dute, asteroideak aztertu eta Lurrera letozkeenak misil nuklearrak espaziora bidalita desbideratzeko.

Carl Sagan eta Steven Ostro zientzilariak ordea, ez daude ideia horrekin ados. Izan ere, sistema horretan potentzia nuklear handia erabiliko litzateke eta espazioan ez-tanda eginda berez Lurrera eroriko ez litzatekeen asteroide ugari erortzeko arriskua legoke.

